Ekipamendu berriek bizitza publikoaren adierazpideak izan behar dute, herritarren eta sortzaileen arteko topaguneak. Izan ere, eremu horiek zentzurik izatekotan, batzuek eta besteek bereganatzen badituzte baizik ez da izango. Hori gertatzeko, ezinbestekoa da ekipamenduak sortzeko unetik bertatik gizartearen parte hartzea izatea; hau da, premiak eta bideragarritasuna aztertzekeo prozesu partekatua gertatzea. Sortzaile eta herritarren parte hartzea, adostasun handiak, nahitaezko baldintza dira, azpiegitura horiek gauzatu eta etorkizunean iraun eta mantentzeko bermea izan dezaten.

Testuinguru horretan planteatzen da sormen-lantegien aukera.



Erantzunkidetasuna, aurrerakuntza demokratikoa

Lantegiak helburuetan eta kudeatzeko moduan bereizten dira kultura-etxeetatik eta kultura-zerbitzu publikorako bestelako ekipamenduetatik. EAzken horietan, administrazio publikoak eraiki edo egokitzen du eremua, helburu zehatz bat izan dezan; berak izendatzen ditu kudeatzaileak eta berorrek erabakitzen du programazioa, nahiz eta batzuetan erabiltzaileen eta inguruko kultura-elkarteen parte hartzea izan. Ekipamendua oso deszentralizatuta egon arren, funtzionamenduaren azken erantzukizuna instituzio titularraren esku gongo da.

Lantegiek bestelako logika dute. Administrazioak dagoeneko abian den gizarte-ekimena bultzatzen du eta, bera bada eremuaren titularra, arte-kolektibo batek edo kultura- edo lanbide-elkarte batek kudeatuko duen proiektuaren zerbitzuan jarriko du.

Sormen-lantegiak proiektu independentea izan behar du, merkatutik nahiz botere politiko edo instituzionaletik autonomia. Berorrek zehaztu behar ditu helburuak eta funtzionamendu-arauak, eta kanpoko agintaritzak batek izendatutakoa izan beharrean, eraginkortasunak eta bultzatzen duen proiektuaren aitorpenak berak eskaintzen duten legitimitasunaz jantzitako zuzendaritza-taldea izan behar du. Hau da, “behetik” eskuratutako legitimitasuna duen zuzendaritza-taldea. Talde horrek bere lan-tresnak –batez ere jarduera garatzen den lokalak– kontrolatu behar ditu. Horretarako, baina, ezinbestekoak dira autonomia hori bermatuko duten formula juridikoak.

Halatan, lantegia ez da udal zerbitzua, ez eta beste inolako instituzioren ere. Helburua ez da herritarrei zerbitzu gehiago eskaintzea, artistek, sortzaileek eta inguruko beste kultura-talde batzuek jarduteko ahalmena areagotzea baizik. Artista eta sortzaileei kultura-prozesuak autonomiaz eta gizarte-protagonismoaz garatzeko baliabideak eskaini nahi zaizkie.

Lantegien independentzia beti izango da erlatiboa, edozein ekonomia-jarduerak gizarte konplexu batean mantendu behar dituen orekan pean. Finantza-laguntza publikoek merkatu-legeetatik autonomia-maila bat izateko aukera eskaintzen dute, baina ez dute baztertzeko ekipamendu horiek euren diru-sarrerak eskuratu eta iraunkortasuna bermatu behar izatea.

54 Kudeaketa-autonomia horri esker, harreman interesgarriak zor daitezke eremu publikoaren eta pribatuaren artean; izan ere, lan profesionalarekin batera, kulturaren boluntario eta aktibisten parte-hartze herritarrarentzako lekua ere izango dute. Guztien ardurapean dagoen eremu batean gertatzen den eragileen arteko elkarmenpekotasunaren ondorioz, errazagoa da instituzioen eta arteko eta kulturako eragileen artean ohi ez bezalako harremanak sortzea. Lehenengoen euren prerrogatiba batzuei uko egingo diete eta bigarrenek, lantegietan ezarri ahal izateko sinatu dituzten hitzarmenetan jasotako irizpideak bete beharko dituzte. Sormen-lantegiaren funtzionamendu eta helburuak egoki betetzeko, erantzunkidetasuna botere politikoaren eta kulturaren arteko harremanak (zailak beti) arautzeko beste modu bat da, eta dirigismoa nahiz etengabeko aurrez aurrekoa gaingitzea dakar.

Erantzunkidetasuna aurrerakuntza demokratikoa da kultura-ekipamenduen kudeaketan, baina horrek ez du esan nahi prozesuan ez denik tentsiorik gertatuko. Izan ere, kultura-eragileek eremu eta baliabide publikoak eskuratzen dituztelarik –aldi baterako bada ere–, sinatutako hitzarmenak eta helburuak betetzen direla zorrotz zaindu behar du erakunde publikoak. Ezin da bestela izan diru publikoa kudeatzen denean. Denborak aurrera egin ahala, harreman horri esker, elkar eza gutza areagotu egingo da: erakundea malguago bihurtu eta sorkuntzaren eta berrikuntzaren premiak hobeto ulertuko ditu, eta sektore horiek politika publikoetan eraginkortasunez eragiten ikasiko dute, proposamenarako kritikaren bidez.

55 Kultura-zentroaren kokapen ideologikoan, kultura-erakundeetara baliabideak transferitze hutsa baino askoz gehiago izan behar du erantzunkidetasunak. Zera da helburua: arte- eta kultura-sortzaileak komunitatearen bizitzan areago inplikatzeko, kultura-politika publikoetara hezkuntzaren zentzua txertatzea, erakundeek eta gizarte zibilak batera eraiki dezaten sorkuntza-programaren kontzeptua eta praktika.



Sormen-lantegietako 'langileak'

Lantegien helburua sorkuntza sustatu, talentua antzeman eta garatzen laguntzea da. Nola lortu da kontua.

Kultura-ekipamendu tradizioaletan —gehienak hurbileko udal zentroak— norbanakoa izan ohi da hartzailea. Helburua herritarrei kulturaren tresnak eskuratu ahal izateko baliabideak eskaintzea da; adibidez, liburutegiak, ikastaroak edo tailerrak. Gaur egun, horren guztiaren premia baztertu gabe, badaude beste premia batzuk, zerbitzu horiek erantzun ezin dituztenak. Kultura-globalizazioaren eta garapen teknologikoaren ondorioz, era guztietako edukiak eskuratzeko aukera mugagabea eskaintzen duten sareak sortu dira, eta iraganean sortzaile gazteentzat eskuratu ezinak ziren teknologiak merkatu egin dira. Internet kultura eta sorkuntza gizarteratzeko eremu paregabea da. Kultura-zentro tradizionala ez da profesional bihurtzeko asmoa duten gazte sortzaileentzako erantzuna.

Artista gazteen sorkuntza-gaitasuna (horietako gehienek goi mailako prestakuntza dute) biderkatu egin da, inoiz baino kolektibo eta enpresa gehiago daude eta, halere, prekaritatea nagusitzen da. Oso zaila da gora datorren sorkuntza ikusgarri egin eta bere potentzialtasun osoa garatu ahal izatea. Arteak eta kultura-sorkuntzak gizartean ospe handia izan arren, hurbilekoari begiratu gero, badirudi jarduera horiek lurpean irautera kondenatuta daudela, etengabe.

Sormen-lantegiak sektore horiei laguntzeko eremuak dira. Lantegi-eredu batek lau alderdi bete behar ditu gutxienez, eta honelako izaera izan behar du:

- Sorkuntza-kontzeptuak eta -proiektuak garatzeko eta ikertzeko eremua. Adierazpide arriskutsuentzako laborategia, merkatuaren gordintasunaren menpean utziz gero, oso zaila izango dutelako hazi eta loratzea. Hain zuzen, horixe da lantegietan instituzioen laguntza handiena behar duen atala, errendimendu kualitatiboa eta epe ertainekoa duelako, eta ezin delako soilik era kuantitatiboan neurtu.
- Gora datozen proiektuei instalazioak, ekipamenduak eta aholkularitza eskaintzen dizkien baliabide-zentroa, hori gabe ezin izango luketelako argia ikusi.
- Sinergiak jarduten duten eremua; lantegian elkarrekin bizi diren proiektuen arteko ezagutzari, kutsadurari eta mestizaiari esker, indarrak gehituko diren eremua.
- Sortzaileak eta mintzaira berrietan eta proposamen berritzaileetan interesatutako ikusleak bilduko dituen erreferentzia- eta hedapen-gunea.

Gora datozen artista eta sorkuntza-enpresei aukera bat eskaintzen diete lantegiek; euren premiei egokitutako hasierako laguntza, baina lan-eredu berria eskatuko duena: antolatze eta sortzeko askatasun-tarte zabalarekin batera, esperientzia partekatzeko exijentzia ere badago. Ohiko arte-sortzailearen tailer indibiduala gainditu eta arte-lanak sortu, ekoiztu eta gizarteratzeko beste modu bati heldu nahi dio eredu horrek. Sortzailearen eginkizuna aldatu eta egungo errealitateari egokitu nahi

zaio, aparteko figura bat izan eta inguruko arazoetatik kanpo gelditu beharrean, testuinguruan inplika dadin. Funtsezko ikuspegi-aldaketa da hori, eta kultura-azpiegitura handiek ez diote oraindik horri erantzun, kezkatuago daudelako kontsumitzaile masiboen aurrean kokapen hobe emango dieten ekitaldiak programatzen.

Lantegien eginkizuna eta euren inguruko oinarrizko sorkuntzarekin duten konpromisoa kontuan hartuta, arte- eta kultura-sortzaileen tipologia anitzak hartzeko eremu egokiagoak dira:

- Sorkuntza-girora hurbildu nahi duten sortzaile independenteak, edota hasi berriak izanik ekonomikoki ahul daudelako, lokalak merkatu arruntan eskuratzeko aukera ez dutenak.
- Ibilbide laburra duten kultura-enpresa txikiak, aholkularitza-premia behar, zerbitzuak partekatu nahi, eta finkatuko diren harremanak bilatzen dituztenak. Lantegiek, gainera, elkarrekin proiektu handiagoei heltzeko aukera eskaintzen die enpresa txikiei, ez dutelako halakoei bakarrik heltzeko aukerarik.
- Lantegiek eremu hori operazio-zentro bihurtzeko aukera eskaintzen diete arte-sektoreko lanbide-elkarteei, dela ekoizpenerako, dela lanak erakusteko. Euren premietarako eta aukera ekonomikoetarako azpiegitura publiko egokia aurkituko duten talde profesionalerik ari gara. Adibidez, tipologia horretan daude arte eszenikoak sortzeko edo erakusteko eremu alternatiboak.

Lantegiak ez dira eremu puruak izaten: jatorriaren inguruabarrei eta ingurune zehatz baten premiei erantzuten diete; ondorioz, aurretik aipatu ditugun egoerak elkarrekin bizi ohi dira. Lehiaketa baten bidez,

bertan sartzeko aukera izan duten erabiltzaileen orotariko tipologia duen lantegiaren profilean hainbat sortzaile mota nahastuko dira: gora datozen sortzaileak, dagoeneko ezagun samarrak direnak, eta proiektu konplexu finkatuak dituzten enpresak.

Lantegi batzuek jabetxeak, erakusketa-eremuak edo ekitaldiak antolatzeke eremuak ere izan ditzakete. Kasu bereziak ere izaten dira, adibidez, administrazio publikoek sormen-lantegien programa barruan aurretiaz zeuden proiektuak, lantegien ezaugarri zenbait zituztenak, sartzen dituztenean. Horixe gertatzen da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, Alfa Arte eskultura-lantegian, industria-dimentsio argia eta artearekiko konpromisoa lotzen dituelako, edota Azala sorkuntza-eremua, landa-eremu bakartu batean artisten erresidentzia bihurtu dena.

60

Administrazioaren eta sortzaileen arteko harreman gardena

Arantzeko gogo handia izanik ere, eremu sortzaile batean beti egongo da zehaztugabetasunerako eta inprobisaziorako marjina zabala, definizioak berak adierazten duenez, “edozer gertatzeko aukera egon behar du-eta”. Hori hala izanik, lantegiaren titularrak administrazio publikoak direnean, hartutako proiektuen sustatzaileekin harreman gardena izateko interesa dute, gaizki-ulertzerik egon ez dadin. Horregatik, hitzarmen-programak sinatu ohi dira, aldean erantzukizunak eta lantegien eremu babestura iristeko baldintzak zehazteko. Lantegia kudeatzen duen organoa arduratzen da horretaz. Normalean, titulartasun publikoa



duten ekipamenduetan, udalak —edota beste instituzio laguntzaileek— eta lantegian ari diren enpresa nagusiek parte hartzen duten fundazioa izaten da. Gizarte-ekimeneko ekipamenduetan edo ekipamendu pribatuetan, sustatzaileek xedatzen dituzte arauak.

Lehenengo eta behin, eremua aldi baterako hartzen dela argitzen da. Denbora luzea edo laburra izan daiteke, proiektuaren iraupenaren arabera. Lantegien filosofian ez du zentzurik mugagabeko egonaldiak, laguntzak betikotu eta proiektuak txandatzea galaraziko duelako. Proiektu baten finkapen profesionala gehienez bi urtetan ebaluatzeko aukera dagoela jotzen da eta, beraz, arrazoi sendorik egon ezean, epealdi hori luzatzeak nahigabeko mendekotasuna eragin lezake. Iraunaldi luzeagoa duen hitzarmena ere gerta liteke, ordea, baldin eta erakunde profesional batek instalazioetan txandakatuko diren enpresa bazkideei zerbitzua eskaintzen badie. Nolanahi ere, mugigarritasuna da araua.

Hartu beharreko proiektuen hautaketa funtsezkoa da, eta sormen-lantegiaren bideragarritasuna bera baldintzatzen du. Eskuarki, hautatze-lana batzorde independenteen esku uzten da, prozesua irekia izango dela eta arte- eta kultura-irizpideetan oinarrituko dela bermatzeko. Proposamenaren kalitatea eta bideragarritasuna izango dira kontuan hartzeko oinarritzko irizpideak. Adituen batzorde horiek, gainera, proiektuak zaintzeko eta aholkularitza- eta laguntza-eginkizunak ere bete ditzakete.

Sormen-lantegiaren arrakasta edo porrota berak hartzen dituen proiektuen kalitatearen arabera, hartzen dituen sortzaile banakoen eta enpresen arabera, eta bideragarritasun ekonomikoa bermatuko dioten ekoizpen-dinamiken eta zerbitzuak merkaturatzeko dinamiken arabera egongo da. Lantegiek proiektu egoiliarrei espazioak alokatzeaz gain, az-

piegiturak errentagarri bihurtzeko beste modu batzuk ere erabiltzen dituzte, adibidez, bere jarduerari loturiko ekitaldiak hartzea. Horri esker, baliabide propioak sortzeko aukera dute. Garrantzitsua da diru-laguntza publikoekiko gehiegizko menpekotasunaren arriskuak murriztea, laguntza horiek politika-aldaketen eta aurrekontu-gabezien segurtasun-ezaren menpe egongo direlako. Lantegiek, proiektu publiko-pribatu mistoak diren heinean, euren finantza-autonomia bermatu behar dute.

Lantegian ari diren artistek eta enpresek ere hartu behar dute parte lantegiaren kudeaketa ekonomikoan, gutxienez jakin dezaten zer gastu dakarren euren erabilerak, eremu publikoaren babesa uzten dutenean, gastu horri osorik eutsi behar izango diotelako.

Sortzaileentzat alokairuen prezio-politikarik onena eskaintzeko gogoia izanik ere, saihestu egin behar dira doakotasuna eta merkatu-prezioetatik urrun dauden prezioak. Bestela, denboran iraun ezingo duen egoerari artifizialki eutsi, eta sasi-profesionaltasuna bultzatuko ditugu.



Sorkuntza-proiektua

Sormen-lantegiaren erronka ez da ekipamendu sofistikatuak izatea, eta bai, ordea, kultura- eta arte-proiektu egokia zehazten jakitea, bai barruan gertatzen denari begira, bai inguruko komunitatearekiko harremanean.

Lantegiek espazio ireki, eskuragarri eta malguak izan behar dute; sortzaileak inplikatu eta hiri-ingurunearekin sareak ehunduko diren espazioak, kultura-eremu erkideak. Sorkuntza edonon dagoela ere, hori biltzeko prest egongo diren espazioak. Nolanahi ere, herritar, auzotar, boluntario edo beste eragile batzuekin harreman estuak izanda ere, argi eta garbi bereizten dira jarduera soziokulturaletara, aisialdira edota artean hasteko tailer edo ikastaroetara bideratutako ekipamendu publikoetatik. Lantegiak proiektu berritzaileen bidez kultura eta artea ekoiztu eta esperimintatzeko eremuak dira, baina horretaz gain dimentsio ekonomikoa ere badute, eta denboran iraun ahal izateko baliabide propioak sortzeko gai izan behar dute.

Arte-diziplinetan sortzeko alokairuko espazioak eskaintzea da lantegien muina: ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, komunikazio-enpresak, kultura-kudeaketako enpresak, ikus artekoak, diseinukoak, arkitektura-estudioak, bai eta sailkatzeko zailak diren beste hainbat esparru ere. Gora datozen proiektuei erreparatzen zaie, maila profesionalean finantzatzeko aukera ikusi, eta arte-hizkuntzetan dakarten berrikuntza eta diziplina-artekotasunaren alde egiten duten apustua hartzen da kontuan. Proiektuak ebaluatzen direnean, ikerkuntzarekiko konpromisoa eta lan-

plangintza zorrotz eta iraunkorra lehenesten dira, arte-helburuak zehatz identifikatuta egonik.

Lantegietako espazioak ahalik eta soilenak izatearen aldeko joera nagusitzen da, horri esker, etorkizunean etor litekeen edozein premiari edo erabilera-baldintzei egokitzeko aukera izango dutelako. Pertsonen eta proiektuen arteko elkarrizketa eta komunikazioa bilatzen dira.

Lantegiek orotariko tipologia izaten dute: lantegi batzuk diziplina batean espezializatu eta diziplina horren premien arabera egokitu dute espazioa; beste batzuk, ordea, edozein proiektutara irekita daude, eta aniztasun horixe da, hain zuzen, euren helburu nagusia. Era guztietarako sortzaileak erakarri eta elkarrizketarako eta trukaketarako espazioa izan nahi dute.

66 Lantegiaren lehen eginkizuna espazio merkeak eskaintzea den arren, finkatu ahala, balioa dakarten beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte, hala nola hartzen dituzten proiektuetarako aholkularitza, ebaluaziorako laguntzak, bekak, banatzaileekin trukaketak edo harremanak, edota bestelako merkataritza-laguntzak. Lantegi batzuetan arte-ekoizpena erakutsi eta saltzeko eremuak daude, bai eta jatetxeak edota sortzaileen arteko edo sortzaileen eta ikusleen arteko topaguneak ere. Helburua ez da objektuak pasiboki begiratzera eta bai, aldiz, lantegiko emaitzak gizarteratu eta sorkuntza-prozesuak bistaratzea.

Baina, batez ere, arte-lana pentsatzeko modu berezia eta artearen eta kulturaren publikoarekin harreman berezia ezartzea da lantegiaren ezaugarri nagusia. Hainbat faktore daude, banan-banan hartuz gero esanguratsuak ez direnak, baina denak batera lantegien mundua ezaugarritzen dutenak, artearen eta kulturaren I+G+b sortzeko baldintzak

eskaintzen dituen laborategiak izan daitezten. Honako hauek dira faktore horietako batzuk:

- Proiektuak taldean eraikitzen dira, arte-diziplinen arteko hormak, sortzaileen arteko gizarte-estatusaren desberdintasunak eta sortzaileen ohiko indibidualismoa hautsiz. Balio erkideen inguruan komunitate sortzailea lortzea da helburua.
- Lan sortzaileak gizartearen kezka eta ardurak barneratzen ditu, inguruarekiko duen hurbiltasunaren eta txertaketaren ondorioz. Lantegiak hartzen dituen kolektiboen ezaugarriak direla-eta, sortzaile batek bere tailerrean bakartuta izan dezakeen harremanaz ez bestelakoa izan dezake, bai eta artearen egitura egonkortuek —hala nola museoek, galeriek edo kultura-industriek— euren publikoarekin izan dezaketenez bestelakoa ere.
- Lantegiak ez dira arte-proiektuez ulertu ohi dugun esanahira mugatzen; aitzitik, artea eta kultura gizarte-zientziarekin lotzen dituzte, gizartean, kulturaren, eta naturarekiko eta ingurumenarekiko harremanean bizitza berritzaile eta estimulagarrien bila.
- Espazioak giza mailan pentsatzen dira, artisten eta sorkuntza-enpresa txikien premien arabera, ekoizpen estandarizatuetan gertatu ezin den hurbiltasunarekin.
- Industria-instalazio zaharren simbolismoak erakarri eta publikoarekiko komunikazioa errazten du.
- Erantzunkidetasunaren eta antolakuntza-malgutasunaren bidez, indartu egingo dituen proiektu kolektibo bateko kide sentitzen dira taldeak.

- Printzipio egituratu egonkorren bidez aritzen diren ohiko kultura-ekipamenduek eskaintzen duten ziurtasunaren ordeztu, lantegiak proiektuen mugikortasuna bultzatzen dute, eta horrek izaera irekia, amaigabea ematen die. Horri esker, errazago moldatzen dira gerta-kizun berrietara eta euren kudeatzaile eta parte-hartzaileen interes-gunearen bilakaerara.
- Lantegiak ekonomia misto eta dibertsifikatua bilatzen dute, ekarpen publikoa eta diru-sarrerara propioak bilduta, eta boluntarioen laguntza (lanerako laguntza, ez diru bidezko laguntza) jasotzen duten gizarte-izaerako proiektuekin.
- Kudeaketa-eredua komunitate-ideian, elkarlanean eta berdinen arteko trukean oinarritzen da. Horrela, ordeztu ekoizpen-formulak bilatzen dituzte, sektore-maila gainditu eta merkatuan eta gizartean txertatuko diren gizarte-berrikuntzarako eredu bihurtzeko.
- Lantegiak ez dira ustezko publikoaren aurreikuspenak asebetetzera mugatzen: publikoa sortu eta moldatu egiten dute, haren jakin-mina piztu eta beraren gustuak eta desirak interperlatuz. Publikoa erabil-tzaile, kontsumitzaile edo ikusle pasiboa izan beharrean, sorkuntza-prozesuaren partaide izatea bilatzen dutela esan daiteke.

Azken batean, lantegiak ederto beteko dute euren eginkizuna, baldin eta sortzaile eta herritarren pentsaera kritikoa zorrozteko balio badute, eta kultura-ondareak ekoiztu eta gizarteratzeko modu alternatiboak proposatzeko gai badira.

Inguruarekiko lotura

Lantegiak inguruan egoki txertatzen badira, auzo-elkarteak eta kultura-kolektiboak gustura sentitu eta sorkuntza-eztabaidan parte hartuko duten gune inklusiboak bihurtuko dira. Ideiak kontrastatu, esperimintatu, eta gizarte-bizikidetzara hobetu eta aberasteko asmoz, orotariko pertsona eta erakundearen arteko elkarrizketaren ondorioz sortzen diren irtenbideak gauzatzeko guneak izan daitezke lantegiak. Halatan, artistek lurralde horretako herritarren kezekin kontrastatu beharko dituzte sorkuntza-prozesuak. Erakusketetara joaten diren ikusleak ez dira kultura-kontsumitzaile hutsak izango, sorkuntza-prozesuaren laguntzaileak baizik.

Lantegiak inguruarekiko hedapen- eta kontraste-eginkizun hori bete ahal izateko, hori egiteko aukera eskainiko dioten azpiegiturak izan behar ditu, halaberrez: erakusketa-aretoak, eta komunikazio-sistema egokia.

Badago lantegien eta inguruaren arteko harreman horretan kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat: gure gizartean izandako aldaketen lekuko dira lantoki zaharrak. Noiz edo noiz, krisi ekonomiko eta sozial larrien protagonista izan dira, eta etsipena eragin dute inguruko komunitateetan. Industria-nabe zaharren ikono izaera hori dela-eta, geroago bertan izango diren artistek eta kultura-eragileek gizartean izandako aldaketei buruz hausnartu eta horren arabera jokatzeko aukera dute. Lurraldean arteak duen esku-hartzearen ondorioz, narriatutako eremuak leheneratzeko aukera egon daiteke, arteak ikuspegi, esanahi, erabilgarritasun eta xarma berriak eskaini diezazkiekeelako. Prozesu



hori gerta dadin, ez da ezinbestekoa kultura-kontsumo masiborako ekipamenduetan inbertsio handiak egitea; aski da helburu horretarantz koherentziaz bideratuko jarduketajarioa izatea.

Halatan bada, sormen-lantegiak ez dira baliagarriak soilik sortzailentzat. Guztiz bestela, lurralde batean kokatu diren artisten txandaketak eta inguru horretako kultura-, gizarte- eta hezkuntza-egiturekin egiten duten lan bateratuak inguru hori eraldatzeko aukera eman dezake, arte-jardunak errealitate fisiko eta sozialaren ikuspegi berriak sortzeko gaitasuna duelako, eta gizarte-taldeen ohiko pertzepzioaren mugak gaindituko dituen munduaren ikuspegiaren erreferentzia bihur daitekeelako.

Sare-lana

Lantegiek ez dute bakarrik jardun behar, gainerakoekin harremanean baizik, eta etengabe sakondu behar dute elkarren arteko trukeen eta aliantzen kalitatean eta aniztasunean.

Komunikazio-alorreko eraldaketa teknologiko handiek, iraultza digitalak... kultura ekoizteko modu ireki berriak planteatzera behartzen gaituzte. Berrikuntzaren protagonismoa ez dago jenio bakar batean, truke- eta lankidetzajardunetan baizik. Premisa horretatik abiatuta, lurralde txiki batean edota errepide eta kultura-ekitaldi handietatik urrundauden herrietan lankidetzajardunak berritzeko aukera dago.

Lantegiek sarean aritzeko eta euren lanak partekatu, hedatu eta iritzi publikoari aurkeztu ahal izateko oinarrizko tresnak izan behar dituzte. Ikus-entzunezko ekoizpenaren eta Internet bidezko hedapenaren al-

deko apustua elementu garrantzitsua da sormen-lantegiaren proiektuetan. Ikusgarritasuna eskuratu ahal izatea da sorkuntza independentearen premiarik handienetako bat eta, aldi berean, sormen-lantegiaren aldetik jaso lezakeen laguntzarik eraginkorrenetako bat.

Teknologia irekiak (adibidez, *creative commons* edo *copyleft* formula) erabiltzea da proiektu horien beste ezaugarri bat, eta koherentea da sorkuntza independentearen gehiengoak defendatzen duen diskurtso kritikoarekin eta gizarte-berrikuntzarako eremuak eskuratu eta ondare erkidean ondasun gehiago txertatzeko helburuarekin. Halatan, trukea eta eskuratzeko askatasuna nagusitzen dira, komunikazio-alorreko multinazional handien jabeago eta monopolio teknologikoaren parez pare.


Sare-lana errazteko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Sormen Lantegiaren programa Esperientzia Sortzaileen Sare independentea bultzatzen du. Horren bidez, esparru iraunkor bat sortu nahi da, helburu bikoitza lortzeko:


- Arte- eta kultura-sorkuntzan eta -ikerketan ari diren pertsonen eta kolektiboen artean informazioa trukatzeko bideak sortzea.
- Prestakuntza-planak abian jartzea eta, horretarako, jardunaldiak, ikastaroak eta urteroko topaketak antolatzea, gure Herriko sorkuntza indartzeko sustagarri izango direlakoan; sortzaileen bakartasuna gainditu, eta arazo eta premia bateratuak dituen sektorea antolatzea.

Sormen-lantegiak: etorkizunerako inbertsioa

Beti komeni da inbertsio publikoekin zuhur jokatzea, eta are gehiago atzeraldi ekonomikoa dagoenean. Sormen-lantegiak dira egungo egoerari gehien egokitzen zaion kultura-ekipamendua, baliabide publikoak murriztu eta, aldi berean, sorkuntzaren ehun profesionalari laguntzeko premia areagotu egin dela kontuan hartuta.

Krisi-garaian ere, kulturen inbertitzen jarraitu behar da. Sorkuntzan inbertitzea gizartea hobetzea da. Hori badakigu, baina egoera zailetan, ohikoa da katea begi ahulenean, itxuraz beharrezkoak ez diren alorretan, haustea. Halere, kultura-ekoizpenaren atzean, barru-barruko esperientziak, esperientzia kritiko, aurrerakoi eta utopikoak, asmatu, ekoiztu, interpretatu eta zabaltzen dituzten pertsonak daude. Noiz edo noiz esperientzia sotilak, fantasiatik hurbil daudenak, izaten dira; beste batzuetan, gure bizitzarekiko ikuspegia eta gainerako gizakiekin ditugun harremanak zirikatzen dituzte. Ez da esparru ukigarria, baina pentsamenduaren eta kulturaren sorkuntzan dago komunitate baten ondare ukiezina. Egoera zailetan pobretze materialari pobretze espiritual eta intelektuala gehitzen badiogu, atzerakada nabarmena gerta daiteke gizartean, eta hori gauzatuz gero, irtenbide politiko demagogikoak eta arrisku totalitarioak gertatzeko eremua prestatzen ari gara. Horregatik da hain arriskutsua komunitate baten kultura-ehuna deuseztatzea. Eta, jakina, ezin da gizarte- edo ekonomia-aurrerakuntzarik egon, kulturaren aurrerakuntzarik ez badago.





SORMEN
LANTEGIAK
FÁBRICAS
DE CREACIÓN

alfa arte

Torrekua, 3 / 20600 Eibar - Gipuzkoa
www.alfaarte.com
armentia@alfalan.es

78 Eskultura sortzeko eremua da Alfa Arte, artisten eta industriaren arteko harremanak estutzeko topalekua. Artisten eta industria-teknikarien arteko bizikidetzatik prozesuari, estetikari, materialei... dagokienez lortutako esperientzian oinarrituta, beharrezkoa iruditu zaigu artistei toki bat eskaintzea, ikertzeko, ikasteko, materialak eskura izateko eta egin daitezkeen prozesuen eta gaur egungo teknologia-ren inguruko informazioa lortzeko. Espacio α 013 da eremu berri hori. Bertan, 800 metro koadrotik gorako inguru bat egokituko dugu, artearen eta industriaren arteko elkarreragin-dinamikak eragiteko, produkzioari eta sormenari begira.

Alfa Arte es un espacio de producción dirigido a la escultura donde se establece la relación entre artistas e industria. Desde la experiencia derivada en el día a día de esta convivencia en aspectos de proceso, estéticos, materiales... entre artistas y técnicos industriales hemos visto necesario promover un lugar donde los artistas puedan investigar, aprender, acceder a los materiales, a la información de los procesos que se pueden realizar y a la información sobre la tecnología existente. Ese nuevo espacio es el denominado Espacio α 013 donde vamos a acondicionar un espacio de más de 800 metros cuadrados que provoque dinámicas de interacción entre el Arte y la Industria en clave de producción y creación.





astra

Goikoibarra 1 / 4300 Gernika - Bizkaia
www.astragernika.net
info@astragernika.net

Astra Kulturarako fabrika soziala da. Arlo publikoaren kudeaketan jendartearen parte hartze zuzena bultzatzen duen espazioa da. Astrak kulturaren ikuspegi zabala bultzatzen du; pertsonen eta lan taldeen ahalmen sortzailea eta soziala dira bere oinarri eta helburuak.

Kulturaren ideia hau ez da mugatzen eskoizpen artistikora soilik; ekimen soziala, pentsamendu kritikoa eta esfera publikoaren demokratizazioa bilatzen dituen ideien eta ekintzen hedapena ere barne haratzen ditu.

Lau espaziotan banatzen da Astra: Arte eszeniko eta gorputz adierazpenaren faktoria, ikus entzunezkoen eta diseinuaren faktoria, arte plastikoen eta eskularen faktoria eta hitzaren faktoria

Se trata de una fábrica social para la cultura. Un espacio que fomenta la participación directa de la ciudadanía en la gestión del ámbito público. Astra promueve una visión amplia de la cultura. Se basa en la capacidad creativa y social de las personas y los grupos de trabajo, y ellos son sus objetivos.

Esta idea de la cultura no se limita a la producción artística; incluye, así mismo, la difusión de ideas y acciones que persiguen la iniciativa social, el pensamiento crítico y la democratización de la esfera pública.

Astra consta de cuatro espacios: la factoría del arte escénico y la expresión corporal, la factoría de las audiovisuales y el diseño, la factoría de las artes plásticas y los trabajos manuales y la factoría de la palabra.





azala espacio

Lasierra, 15 / 01428 Lasierra [Ribera Alta] - Araba
www.azala.es
azalaespacio@gmail.com

Ikerketa eta sorkuntza artistikoa eta kultura-aktibismoa bultzatzeko proiektua da AZALA. Aldi baterako aterpea, etxe irekia, parte hartzeko lekua. Artista, sortzaile, aktibista eta pentsalarien topalekua eta elkartrukerako eremua. Dantzan eta arte eszenikoetan oinarriturik, haren uhin hedakorrak beste arte-diziplina batzuk ere zeharkatzen ditu naturaltasunez eta promiskuitatez, bai eta beste deitura batzuk ere: arte performatiboak, gorputzaren arteak, arte biziak...

86

AZALA es un proyecto para la investigación y creación artística y para el activismo cultural. Un refugio temporal, una casa abierta en la que tomar parte, participar. AZALA, es un lugar para el encuentro e intercambio entre artistas, creadores, activistas y pensadores. Siendo la danza y las artes escénicas el epicentro de este lugar, su onda expansiva se extiende y atraviesa con naturalidad y promiscuidad otras disciplinas artísticas, así como otras nomenclaturas como artes performativas, artes del cuerpo, artes vivas.



87



harrobia eskena

Langaran, 3. Otxarkoaga / 48004 Bilbao - Bizkaia
www.harrobia.org
info@harrobia.org

Sorkuntza eszenikorako berrikuntza-gunea da Harrobia Eskena, eta Bilboko Otxarkoaga auzoan dago. Gaur egun Harrobia dagoen lekuan, eliza zahar bat zegoen. Azterketa sakonaren ondoren, arte eszenikoen sektorearen beharrei erantzuteko moduko eremuak eta zerbitzuak atondu dira.

Harrobia Eskena es un centro de Innovación en Producción Escénica, situado en el barrio de Otxarkoaga en Bilbao. El espacio físico que ocupa, en la actualidad el Harrobia, era una antigua iglesia, donde se ha realizado un estudio previo para dotarlo de espacios y servicios acordes con las necesidades del sector de las artes escénicas.





artde irun: bitamine / irun factory

Perujaran Kalea 9, Bajo / 20305 Irun - Gipuzkoa
www.bitamine.net
faktoria@bitamine.net

94 BITAMINE eta IRUN FACTORY (garatze-bidean) sormen-lantegiak gauzatzeko proiektua da. Beste proiektu batzuk ere sustatzeko aukera ematen du, eta, zuzkidurak, azpiegiturak eta egitura eskura jarriz, pertsona nahiz talde sortzaileei espazioak, baliabideak eta laguntza eskaintzen die, kulturaren eta artearen alorreko ekoizpenak, prestakuntza eta esku-hartzeak gauza ditzaten, eta, aldi berean, talentua bilatzen nahiz babesten eta parte-hartuzko kudeaketa bultzatzen laguntzeko. BITAMINEk helburu hau du: parte hartzeko kultura-eredu kolektibo, esperimental, horizontal eta nazioartekoaren alde apustu egiten duten proiektuak bideratzea. Arte garaikidearen alorreko prestakuntza, hedapena eta proiektuen ekoizpena bideratzeko espazioa izan nahi du.

Proyecto que desarrolla las fábricas de creación BITAMINE e IRUN FACTORY (esta última en desarrollo). Posibilita, facilita y promueve el alojamiento de otros proyectos, y busca (facilitando dotaciones, infraestructura y estructura) propiciar, tanto a personas como a colectivos creativos, espacios, recursos y acompañamiento colaborativo para que puedan desarrollar sus procesos de producción, formación o intervención cultural y artística, la detección y el respaldo del talento y la gestión participativas. BITAMINE pretende posibilitar y alojar proyectos que sean una apuesta por un modelo cultural participativo, colectivo, experimental, horizontal e internacional. Quiere ser un espacio dedicado a la Formación, la Difusión y la Producción de proyectos dedicados al arte contemporáneo.





kunarte

Abetxuku, 8B / 01013 Vitoria-Gasteiz - Araba
www.teatroparaiso.com
kunarte@teatroparaiso.com

Urte 1 eta 6 bitarteko umeen estimulazio artistikorako proposamen bat da kunarte. Abentura berritzailea, funtsezko bi ibilbide dituena: TallerARte eta Ikusi Makusi. TallerArten, 3 eta 6 urte bitarteko neskatila-mutikoez hainbat arterekin esperimentuak egiteko beta izango dute, astean behin. Sormenean eta emozioan oinarritutako bizipenak bilatzea du xede, eta ingelesez, euskaraz nahiz gaztelaniaz bideratuko da. Ikusi Makusin, ostera, familia osoek (1 eta 6 urte arteko txikiekin) asteburuetan hainbat lan eszeniko ezagutzeko aukera izango dute. Ondoren, gainera, artistekin jolas egin eta une bereziak igaro ahal izango dituzte.

Una propuesta de estimulación artística para niños y niñas de entre 1 y 6 años. Una aventura innovadora con dos rutas fundamentales: TallerArte e Ikusi Makusi. En TallerArte, los niños y niñas de entre 3 y 6 años podrán, semanalmente, experimentar con distintas Artes. Todo, en busca de una vivencia creativa y emocional, a la que los pequeños y pequeñas se acercarán en inglés, euskara y castellano. En Ikusi Makusi, por otra parte, las familias al completo (con pequeños y pequeñas de entre 1 y 6 años), podrán los fines de semana, conocer distintos trabajos escénicos, tras los cuales podrán, además, jugar y compartir momentos especiales con los artistas.





muelle 3

Mesedeetako kaia 3, 4B / 48003 Bilbao - Bizkaia
muelle3.wordpress.com
muelle3@gmail.com

Dantzarako, sorkuntzarako eta prestakuntzarako espazioa da. Ikerketaren, sorkuntzaren eta prestakuntzaren bidez, dantzako eta eszenaren eta gorputzaren alorreko beste diziplina batzuetako ezagutza-elkartrukea sustatzen duen espazio likidoa da Muelle 3. Bertan, zeharkakotasunetik ulertzen ditugu dantza eta arte eszenikoak, hainbat diziplina eta gizarte-arloekin eta horien ondoriozko pentsamendu kritikoarekin harremanean. Gaur egun, proiektu ugari garatzen ditu, sormenaren eta ikerketaren, artearen eta erkidegoaren, eta hedapenaren eta prestakuntzaren arloetan.

Es un espacio de danza, creación y formación. Muelle3 es un espacio líquido que promueve el intercambio de conocimiento a través de la investigación, la creación y la formación en danza y otras disciplinas escénicas y corporales. En muelle3 entendemos la danza y las artes escénicas desde una visión transversal y en diálogo con diferentes disciplinas y ámbitos sociales y el pensamiento crítico que deriva de ellas. Actualmente desarrolla numerosos proyectos distribuidos en las áreas de creación e investigación, arte y comunidad, divulgación y formación.



104



105



pabellón nº 6

Deustuko Erribera, 47 / 48014 Bilbao - Bizkaia

www.pabellon6.org

contacto@pabellon6.org

PABELLON Nº 6 izenarekin arte eszenikoen (dantzaren eta antzerkiaren) munduari atxikitako sortzaileak, bazkideak nahiz sustatzaileak, aurkezten dira. Sinergiak ahalbidetzea eta partekatutako autokudeaketa-ariketa bat egitea du xede, eta esperientzia berritzailea sortzen dute: sortzaileak eurak dira beren lanak nola hedatu zuzentzen dutenak. Horrela, proiektu ikusle-entzule-bazkidearen konplizitatea bilatzen du, hiriko eremu ofizialek eskaintzen dituzten aukera mugatuen menpe jarri gabe.

200 bazkide fundatzaile, bazkide aktibo eta bazkide kolaboratzaile dira.

[Pabellón nº 6 Zorrotzaurreko ZWAP Bilbao proiektuaren espazioei atxikita dago (alokairu bidez)].

Bajo el nombre de PABELLON Nº 6, se presentan asociados como promotores, creadores adscritos al mundo de las Artes Escénicas: Danza y Teatro con la pretensión de propiciar sinergias y hacer un ejercicio de autogestión compartida, originando una innovadora experiencia: la de que los propios creadores sean quienes rijan la difusión de sus trabajos, buscando la complicidad del público-espectador-socio del proyecto sin someterse a las limitadas posibilidades que ofrecen los espacios "oficiales" de la ciudad.

Se compone de 200 socios fundadores, socios activos, socios colaboradores.

[El pabellón nº 6 está vinculado –mediante alquiler– a los espacios del proyecto ZWAP Bilbao en Zorrozaurre].





tabakalera

Duque de Mandas, 52 / 20012 Donostia - Gipuzkoa

www.tabakalera.eu

tabakalera@tabakalera.eu

Tabakalera proiektuaren bidez, Donostiako tabako-fabrika zaharra ikus-kulturan espezializatutako kultura garaikideko nazioarteko zentro bihurtu da. Arte garaikideak, telebistak, bideoak eta zinemak, diseinuak eta soinuak eremu bakarrean egingo dute bat. Eremu berezi horretan, erakusketak eta ikus-entzunezko programak bilduko dira. Baina, bereziki, lanerako, ekoizteko eta sortzeko lekua izango da. Irudien lantegia.

Proiektua garatu ahala eta eraikina berritzeko prestaketek aurrera egin ahala, Tabakalerak erakusketak, zikloak eta debateak antolatzen ditu. Jarduera horiekin batera, inguruko beste eragile batzuek ekoiztako grabaketak, filmaketak eta gertaldiak ere ikusi ahal izango dira. Tabakalera toki bizia da dagoeneko.

Tabakalera es el proyecto que convertirá la antigua fábrica de tabaco de Donostia-San Sebastián en un Centro Internacional de Cultura Contemporánea, especializado en cultura visual. El arte contemporáneo, la televisión, el vídeo y el cine, el diseño y el sonido confluirán en un mismo espacio. Un espacio singular de exposiciones y programas audiovisuales y, sobre todo, un lugar para trabajar, para producir, para crear. Una fábrica de imágenes.

Mientras se desarrolla el proyecto y avanzan los preparativos para renovar el edificio, Tabakalera organiza exposiciones, ciclos, debates. Sus actividades conviven en los espacios de la fábrica con grabaciones, rodajes y eventos producidos por otros agentes del entorno. Tabakalera es ya un lugar vivo.



haceria-zawp

Deustuko Erribera, 47 / 48014 Bilbao - Bizkaia

www.zawpbilbao.com

info@zawpbilbao.com

ZAWP Bilbao (Zorrotzaurre Art Working Progress) Deustuko Erriberako-Zorroztzaurreko hirigintza-eraldaketako prozesua hausnartu, interpretatu, proiektatu eta berrasmatzearen ondorioz jaio zen. Artearen, sorkuntzaren eta berrikuntzaren bidez, Deustuko Erribera-Zorrotzaurre suspertzea du xede ZAWPk, eta industria-eremu hondatua aukerekin jositako inguru bihurtzea, gizarte-eragileek askatasunez mintzatzeko aukera izan dezaten, elkarrizketa eta diziplinen arteko harremanak sustatuz. Gaur egun, eremu eta proiektu hauek ari dira garatzen: GARABIA ZAWP ARETOA, hACERIA ARETOA, ETC 02 eta ETC 04 (partekatutako lanerako eremua), DELIRIUM STUDIOS CAFE, BAZAWP, EB@, KAROLA ZIRKO ESPAZIO, PAPELERA ZAWP, OFICINAS hACERIA ARTEAK eta ZAWP BILBAO.

ZAWP Bilbao [Zorrotzaurre Art Working Progress] es un proyecto que nace como ejercicio de la reflexión, interpretación, proyección y reinención del proceso de transformación urbanístico de Ribera de Deusto-Zorrotzaurre. A través del arte, la creación y la innovación ZAWP pretende revitalizar la Ribera de Deusto-Zorrotzaurre, convirtiendo una antigua zona industrial degradada en un espacio de posibilidades, donde los actores sociales puedan expresarse libremente, fomentando el diálogo y la interrelación entre las distintas disciplinas. Actualmente, sus espacios y proyectos en desarrollo son: GARABIA ZAWP ARETOA, hACERIA ARETOA, ETC 02 y ETC 04(Espacio de Trabajo Compartido), DELIRIUM STUDIOS CAFE, BAZAWP, EB@, KAROLA ZIRKO ESPAZIO, PAPELERA ZAWP, OFICINAS hACERIA ARTEAK Y ZAWP BILBAO.





garabia zawp aretoa

Deustuko Erribera, 47 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

Diziplina anitzeko jarduera-eremua, unean uneko sorkuntzaz gain, bereziki erakusketarako egiteko aukera ematen duena. Bertan, hainbat motatako arte-eta kultura-jarduerak egin daitezke: ikastaroak, hitzaldiak, lanak, entseguak, telebista...

Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Espacio de actividad multidisciplinar que permite la creación puntual y, especialmente de exhibición, en el que se pueden desarrollar actividades artísticas y culturales de diversa índole (cursos, conferencias, trabajos, ensayos, plató TV...). Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





haceria aretoa

Deustuko Erribera, 42 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.haceria.org
info@haceria.com

Diziplina anitzeko aretoa. Sortzeko eta erakusteko erabilera anitzeko eremua, batez ere arte eszenikoei zuzendua. Artea egin eta erakutsi nahi duten pertsonentzako plataforma izateko filosofian oinarritua. Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Sala multidisciplinar. Espacio polivalente de creación y exhibición, especialmente de artes escénicas. Basándose en la filosofía de ser plataforma todas aquellas personas que quieran "hacer" y mostrar su arte. Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





ETC 02:

espacio de trabajo compartido

Deustuko Erribera, 47 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

Industria-pabilioi hau ZAWP Bilbaok birgaitu zuen, kulturarekin, artearekin eta berrikuntzarekin lotutako proiektuak gauzatzeko. Hona hemen gaur egun instalatuta dauden proiektuak: JABON "ARTE", UP-ART, ATOMIC LUZ Y SONIDO, IBILBI, LABORATORIO TÉCNICO INVISIBLE eta DYSTOPIA.

Hacería-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Pabellón industrial rehabilitado por ZAWP Bilbao como espacio compartido que alberga proyectos realacionados con la cultura, el arte y la innovación. Los proyectos que actualmente están instalados: JABON "ARTE", UP-ART, ATOMIC LUZ Y SONIDO, IBILBI, LABORATORIO TÉCNICO INVISIBLE y DYSTOPIA. Proyecto desarrollado por hacería-ZAWP Bilbao.





ETC 04:

espacio de trabajo compartido

Eugenio Olabarrieta plaza, 1 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

Jatorriz bi lokal zirenak, birgaitu eta eremu bakar bilakatu dira. Kulturaren, artearen eta berrikuntzaren inguruko proiektuak biltzen dituzten 10 modulu.

Hona hemen gaur egun instalatuta dauden proiektuak: ENTRE LO CASUAL Y LO REAL, NORTASUN DIGITALA-BASQUE SAREA, ARBOX, LAFA CREA, DINAMIK IDEAS, RECUPERACIÓN INDUSTRIAL (TXIMINI), CON TACTO, MARMOKA FILM, NASTY BILBAO MUSCIWORKZ eta DIFFUSIÓN-BASQUE SAREA.

Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Dos locales en origen, rehabilitados y convertidos en un único espacio. 10 módulos que albergan proyectos relacionados con la cultura, el arte y la innovación. Los proyectos que actualmente están instalados: ENTRE LO CASUAL Y LO REAL, NORTASUN DIGITALA-BASQUE SAREA, ARBOX, LAFA CREA, DINAMIK IDEAS, RECUPERACIÓN INDUSTRIAL (TXIMINI), CON TACTO, MARMOKA FILM, NASTY BILBAO MUSCIWORKZ y DIFFUSIÓN-BASQUE SAREA.

Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





delirium studios cafe

Deustuko Erribera, 46 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.delirium.es
arturomonero@deliriumstudios.com

ZAWP Bilbaok birgaitutako industria-pabilioi horretan, bideo-jokoak diseinatu eta ekoizten dituen DELIRIUM STUDIOS CAFE enpresa dago. Espazioaren erdia ekoizteko erabiltzen da; beste erdia, berriz, kafe-estudio bat da eta lantegiak, workshopak eta lan-prozesuaren proiektzio irekiak egiteko erabiltzen da. Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Pabellón industrial rehabilitado por ZAWP Bilbao que actualmente alberga a DELIRIUM STUDIOS CAFE, empresa de diseño y producción de video juegos. La mitad del espacio para producción y la otra mitad como café-studio para talleres, workshops y demos del proceso de trabajo en abierto con proyecciones. Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





134



135



bazawp

Deustuko Erribera, 45
48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

ZAWP proiektuaren eta bertako proiektuen informazio-gune gisa gaitutako eremua. Zawperren produktuak saltzeko gune izan nahi du, baina ZAWP taldetik kanpo POP-UParen modalitatea egiten duen beste edozein artistarenak ere salduko dira.

Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

136 Espacio habilitado como punto de información del proyecto ZAWP y de los proyectos residentes. Otra de las actividades es servir de punto de venta de los productos de los zawpers, así como de cualquier artista fuera de la comunidad ZAWP en modalidad POP-UP.

Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





eb@

Deustuko Erribera, 47
48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

Emprendedores de Bizkaia Asociados. Jarduera ekintzaileentzako lan-eremua. EB@k aholkularitza eta babesak ematen die. EB@rekin hitzartutako lekuak CrazyTown du izena. Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Emprendedores de Bizkaia Asociados. Espacio de trabajo para alojar iniciativas emprendedoras con asesoramiento y tutelaje por parte de EB@. Espacio conveniado con EB@ cuya materialización se centra en CrazyTown. Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





karola zirko espazio

Ignacio Zuloaga margolariaren kalea, 5 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

144 Karola Zirko Espazioa zirkoaren eta kale-antzerkiaren munduari eskainitako gu-nea da. Bertan, Euskal Herriko eta, bereziki, Bizkaiko konpainia profesionalak beren beharren arabera diseinatutako esparruak dituzte: entsegurako eta entrena-mendurako aretoak, biltegia, bulegoak, lantegia, erakusketa... Hori guztia kudea-tzen duen elkarte partaide berriei irekita dago, eta helburu nagusi bi ditu: zirkoa eta kale-antzerkia ezagutaraztea eta konpainiek eta konpainientzako pentsatu-tako leku bat eskaintzea. KAROLA ZIRKO ESPAZIOrekin hitzartutako eremua. Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Karola Zirko Espazioa pretende ser un espacio de circo y teatro de calle donde las compañías profesionales de Euskal Herria y en concreto Bizkaia puedan desarrollar todas sus áreas en un espacio diseñado en base a sus necesidades: salas de ensayo y entrenamiento, almacén, oficinas, taller, exhibición, etc. Todo esto llevado por una asociación abierta a nuevas incorporaciones y con dos objetivos primordiales, difundir el circo y el teatro de calle y ofrecer un espacio pensado por y para las compañías. Espacio conveniado con KAROLA ZIRKO ESPAZIO. Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





papelera zawp

Deustuko Erribera, 17 / 48014 Bilbao - Bizkaia
www.zawpbilbao.com
info@zawpbilbao.com

Antzinako Papelera Nevión. Gune hau 2012ko uztailean hasi ziren birgaitzen, eta 2012ko urrian amaitzea dago aurreikusita. Industria-estetikari eutsiko dio eraikinak. Arkitektura berezia izango du: ganga-formako sabaia eta argi natural handia. Hausnartzeko eta sortzeko lekua izango da Papelera. Eztabaidarako, hausnartekarako eta ekintzarako giroa sortuko du, eta hainbat diziplinatatik interpretatzeko aukera emango du. Hona hemen aurreikusi diren lan-ildoak: gizarte-berrikuntza; sorkuntza eta ekoizpena; erakusketak, zuzeneko emanaldiak; kultura-eragileentzako gunea: hiria, lurraldea, herrialdea, estatua eta Europa; ezagutza-eremua; gastronomia eta artea.

Haceria-ZAWP Bilbaok bideratutako proiektua.

Antigua Papelera Nervión. La rehabilitación de este espacio comenzó en julio 2012 y finalizará en octubre 2012. Este espacio mantendrá su estética industrial, especial arquitectura, con un techo abovedado y una gran luz natural. Papelera será un espacio de reflexión y creación, generador de un espacio de debate, reflexión y acción abierta a la interpretación desde diferentes disciplinas. Las líneas de trabajo contempladas son innovación social; creación y producción; exhibición, eventos en vivo; Casa Europa; espacio para los agentes culturales: Ciudad, Territorio, País, Estado y Europa; espacio de conocimiento; gastronomía y arte.

Proyecto desarrollado por haceria-ZAWP Bilbao.





amiarte

Gordoniz, 41 / 48012 · Bilbao · Bizkaia
www.amiarte.org
amiarte@euskaltel.net

AmiArte diziplinarteko, Sorkuntza Artistikorako, pintura, diseinuko objektuen sorkuntzarako, argazkigintza, ikus-entzunezkoak, poesia eta abarren sorkuntza tailerra da. Tailer honetan artista eta profesionalok egoera zaila duten pertsonekin esperientziak partekatzen dira. AmiArten begirada balorean jartzen saiatzen dira, begirada errespetua baita eta bertatik edonork dituen sormen aukerei irteera ematen zaie. Balio gehigarri moduan kulturarteko proiektu nahasketa erabiliaz. Ingurunean sentiberatasuna jorratzen dute elkarrekiko jarrera eta konpromezua bultzatuz. Espazio publikoatan erakusketak eta proiektu muralak garatzen dituzte. Herrialde ezberdinetako artistak hartzen dute parte proiektu honetan.

AmiArte es un taller de Creación Artística interdisciplinar. Pintura, creación de objetos de diseño, fotografía, creación audiovisual, poesía... En este taller artistas y profesionales comparten experiencias con personas en situaciones difíciles. En AmiArte se trata de valorar la mirada. Mirar significa respeto y desde él dar salida a las posibilidades creativas que todo ser humano tiene. Con una gran riqueza añadida: el mestizaje de un proyecto intercultural. Se trata de sensibilizar al entorno social para una provocar una actitud y compromiso solidarios. AmiArte realiza proyectos murales y exposiciones en lugares públicos. Forman parte de este proyecto artistas de muchísimos países.





155



154

Fábricas de Creación, una definición compleja	10
Sormen lantegiak, defintitzeko zailak	44
Alfa arte	78
Astra	82
Azala espacio	86
Harrobia eskena	90
Artde Irun: Bitamine / Irun factory	94
Kunarte	98
Muelle 3	102
Pabellón nº 6	106
Tabakalera	110
Haceria-zawp	112
Garabia zawp aretoa	116
Haceria aretoa	120
ETC 02: Espacio de Trabajo Compartido	124
ETC 04: Espacio de Trabajo Compartido	128
Delirium Studios Cafe	132
Bazawp	136
EBA	140
Karola zirko espazio	144
Papelera zawp	148
AmiArte	152

